

Bilboko Umeen VIII. Poesia Lehiaketak 453 poema jaso ditu

BILBO. Bilboko Umeen Poesia Lehiaketaren zortzigarren edizioak hiriko 11 ikastetxetatik helduriko 453 poema jaso ditu guztira. 8 eta 16 urte arteko umeei zuzendutako lehiaketaren sariak banatzeko ekitaldia igandean ospatuko da, eguerdiko 12:00etan, Bidebarrietako liburutegiko ekitaldi aretoan, "Teleipuiñak" txotxongilo taldeak aurkeztuko eta zuzenduko duen ekitaldian. Ikus-entzule guztientzat zabalik egongo den ekitaldiak ipuinen mundua izango du ardatz, eta Bilbaopoesia Poesia Astearen baitan egongo da.

Andoni Esparta (Begoñazpi ikastola), Sarai Rodríguez (C.P. Arangoiti), Lucas Ortiz de Zárate (Arangoiti ikastetxea), Alicia Nieto (Nuestra Señora de Begoña-Hijas de la Caridad), Javier Arteta (Artxandape ikastola) eta Ane Gorostiaga (Gabriel Aresti BHI) izan dira Umeen VIII. Poesia Sariaren irabazleak, bakoitza bere modalitatean, Bilboko Udaletik adierazi dutenez. Gainera, epaimahaiak sari bana eman die Artxandape ikastolari, euskaraz aurkeztutako lanen kopuruarengatik eta kalitatearengatik, eta Berrio-Otxoa ikastetxeari, gaztelaniazko modalitatean erakutsi izan duen inplikazioarengatik eta parte hartzearengatik.

Halaber, txikienak izango dira bihar ere Bilbaopoesiaren egitarauaren protagonistak. Horrela, Basurtuko Ospitalean dauden umeei poesia eta musika errezitaldiaz gozatu ahal izango dute ospitaleko instalazioetan. Errezitaldia Juan Kruz Igerabide idazle gipuzkoarrak eskainiko du, Tiziana Taglianik kontzertu-emaileak arpan lagunduta. Igerabide idazle euskaldunak poesia liburuak eta umeei eta gazteei zuzendutako lan asko idatzi ditu. Bestalde, Bilbaopoesiaren barruan, "Topaketak" izeneko jardunaldia burutuko da bihar, 2009ko Kritikaren Saria lortu zuen Andres Neuman poeta eta idazle argentinarrarekin eta "Bilbao-New York-Bilbao" lanari esker 2009ko Espainiako Narratiba Saria lortu zuen Kirmen Uribe idazle euskaldunarekin. Errezitaldia arratsaldeko 19:00etan izango da. Halaber, bihar baita ere, gaueko 21:30etan, "Debut poetikoa" errezitaldia eskainiko dute Lucia Camonek eta Fran Rubio piano-jotzaile ezagunak. Inprobisaziorako uneak izango dituen poesia-musika ikuskizun "freskoa eta dotorea" eskainiko dute.